


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo dira 2008ko uztailan

Azken hamabi hilabeteetan (2007ko uztailetik 2008ko uztailera) eraikuntzaren kostuak %7,7 igo dira.

EUSTATen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzaren kostuen indizeak %0,1eko igoera izan du 2008ko uztailan, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %7,7raino igo da.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2008



(*)Gehikuntza uztailako urte artekoa da

2008ko uztailan lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0); lehengaien kostuek, aldiz, %0,1eko igoera izan dute.

Eraikuntzaren eta obra zibilarren azpisektoreetako lehengaiak bilakaera ezberdina izan dute: eraikuntzak %0,1eko igoera izan du aurreko hilabetearekin alderatuta, baina obra zibilerako lehengaien kostuek -%0,3ko beherapena izan dute. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaerari dagokionez, bata bestearengandik urruntzen ari dela egiaztatu da: eraikuntzako lehengaien kostuak %7,7 igo dira, eta obra zibilerako lehengaien kostuek %9,7ko igoera izan dute.

Uztailan prezioaren hazkunde handienak, besteak beste, honakoetan kontsumitutako lehengaietan eman da: energia elektrikoa eta gasa (%5,1), altzarien fabrikazioa (%0,8) eta material elektronikoa (%0,5). Aitzitik, ondokoen prezioek behera egin dute: petrolioaren birfinketa (-%2,7), material elektrikoa (-%0,8), industria ez-metalikoa (-%0,2) eta makineria (-%0,1).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: petrolioaren birfinketa (%17,6), energia elektrikoa eta gasa (%17,1) eta mineral ez-metalikoak (%15,3). Bestalde, ondoren ematen diren ataletako lehengaien prezioak urte batetik bestera (2007ko uztailetik 2008ko uztaileira) gutxitu egin dira: material elektronikoa (-%2,9), zuraren industria (%1,8) eta makineria (%2,2).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2008ko uztaila

GOIBURUAK	INDIZEA 2005= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	116,6	0,1	7,7	6,0
ERAIKINAK	116,0	0,1	7,5	5,7
OBRA ZIBILA	118,9	-0,2	8,8	7,1
LEHENGAIEN KOSTUA	116,7	0,1	8,2	5,9
ERAIKINAK	115,9	0,1	7,7	5,5
OBRA ZIBILA	119,7	-0,3	9,7	7,4
LAN-ESKUAREN KOSTUA	116,6	0,0	6,3	6,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp